# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 523

*254/2022 EBAZPENA, urtarrilaren 18koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Zuzendari lanpostutik kentzen baita Sabino Sarrionandia Azaola jauna, jubilazioagatik.*

Osakidetzako zuzendari nagusiaren apirilaren 10eko 450/2014 Ebazpenaren bidez (2014ko maiatzaren 6ko EHAA 83. zk.), Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari izendatu zen Sabino Sarrionandia Azaola jauna.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Sabino Sarrionandia Azaola jauna Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako Zuzendari lanpostutik kentzea, 2022ko urtarrilaren 16ko lanaldia bukatu zenetik, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendaritzari.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urtarrilaren 18a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.